

ZERGATIK OTE GAURKO GAZTE ASKOREN KONPONDU EZIÑA?

Gaur egun gertatzen diran gauzak ikusita nere moduan urtez aurreratuak gaudenak nahiko harriturik gelditzen gera sarritan. Nere ustez benetan harrigarria baita gaurko gazte askoren artean gertatzen ari dana.

Bihotzez eta animaz alkar maite duten itxurak eginaz ezkondu edo harrimatzen diran neska mutil asko zori txarrez handik hilabete batzuetara edo urte gutxira alkarrekin ezin konpondu dirala eta apartatzen edo dibortziazten ikusten ari bait gara. Eta hori noren erruz eta zergatik gertatzen den ez dugu sekulan ere jakiten.

Hau dala eta ni artean oso gaztea nintzala neska-mutilen artean gertatu ohi ziran gauza batzuek etortzen zaizkit burura.

Garai hartan neska-mutilak alkarri ezkontzeko hitza eman ondoren, beti, edo, gehienetan behintzat, ezkondu gabe egon ohi ziren denboraldi batean, eta bitartean, alkar hobeto ezagutu, ezkontza eta beren bizilekua prestatu, eta abar egin ohi zituzten, presarik gabe, patxara ederrean.

Baña baziren oraindik sinatu gabeko kontratu hori hautsi edo baztertu eta ezkondu gabe gelditu ohi zirenak ere. Eta honelako kasuetan noren erruz edo zer arazoengatik uztartu edo ezkondu gabe gelditu ohi ziran bertsotan adierazten zuten beti edo gehienetan.

Hor dijoazkizue Joxe Agustin eta Maria Martak elkarri jarritakoak:

1.-

J.A.: Parra eragin behar du asko
gure ezkontza galduak
nere andregai Martarengatik
diralako kontuak
haserretuta gabiltza orain
adiskide izanduak
publikatzen hastera nua
jakin ditzala munduak.

2.-

M.M.: Joxe Agustin ez neri esan
gezurra ahoa betean
lotsa neronek emango dizut
hasialdiren batean
konformatuta jarriak ginan
ezkondutzeko ustean
engañatuta eduki nauzu
joan daneko bi urtean.

3.-

J.A.: Engañosorik ez dizut egin
saiatu bai alegiña
plazetan ere dantza franko zu
zaude nerekin egina
ustez kunplitzen saiatu arren
aurkitzen naiz hutsegina
gehiago ere egingo nizun
manifestatu bazina.

4.-

M.M.: Egia esan dantza franko zuk
eragin izan zizazun
bainan merienda beste neska
eman izandu ziozun
lotsaz ta penaz ni bazterrian
hantxen utzitzen ninduzun
ez bihotzetik esan bezela
maite izan baninduzun.

5.-

J.A.: Meriendatzen ikusi eta
hartzen dituzu zeluak
orain penetan gertatzen dira
lehengoko konsueluak
zerorri ere egin dizkizut
hobiak erregaluak
behatzetako eraztun eta
sedazko pañueluak.

6.-

M.M.: Neri agindu ezkontzeko eta
besteren bila ibili
maiz bisitatu izan dituzu
Benita eta Xixili.
Bainan txapela batekin ezin
biren buruak estali
zintzurra moztu behar zaiote
zenbait holako mutili.

7.-

J.A.: Zu ikustera joan ninduzun
Aszentzio arratzian
egiko Joxe eta Manuel
hantxe zeuzkatzun etxian
lotsatu eta aldegin nuen
modu hura ikustian
hola izaten ditut nik ere
nere penak bihotzian.

8.-

M.M.: Gure etxean asto bat eta
lau txerri zeuden saltzeko
egiko Joxe eta Manuel
joan ziran haiek hartzeko
asko eskatu gutxi eskeini
modurik ez konpontzeko
bisita hura etzan izandu
Martarekin ezkontzeko.

9.-

J.A.: Maria Marta behar duenak
ibili behar du justu
haserretzeko gaian dagonak
askoren beharrik eztu
ezkondutzeko prestatu arren
gutxirengatik zapuztu
hori neskazahar gelditu baietz
egingo nuke apostu.

10.-

M.M.: Joxe Agustin galai haundia
behar didazu aditu
neri agindu ezkontzeko eta
besterekin ibilitu
haserretzeko gaian dagonak
badu nahi aiña delitu
nik ez bañan zuk mutilzahartuta
behar zenduke gelditu

11.-

J.A.: Maria Marta aditu zazu
nik zer esan nahi nukian
biok zahartuta gelditu gabe
alkarganatu gaitian
ikaratzen naiz modu horretan
zer gertatu litekian
ahal bada biok ezkondu eta
biziko gera pakian.

12.-

M.M.: Joxe Agustin galai haundia
mila esker dizut zuri
ezkondu eta zure mendean
eztut nahi inolaz jarri
lanik txarrena emango diot
hola nere buruari
hortik ibili Jainkoa lagun
ez neregana etorri.

MARTZELINO LEGORBURU
«ARGIÑANE»